

## Yibuti eta askatasuna

*Deia*, 1977-06-30.

Afrikako herri txiki hau (210.000 biztanle. 23.000 kilometro kuadratu) askatu da.

Nork esan du hau ez dela herri txikien askatasun ordua?

Frantziak lur eta gizon asko zanpatu du historian zehar, eta biolentzia zer den esango luke Canada, Luisiana, Indotxina eta Afrikako zenbait herrik; honoko hau, Yibuti, izan da kontinente hontan galdu duen azkenekoa.

Baina, eta pena da, askatasun hau ez da justiziak eta bihurtzak eraginda emana izan.

Diru asko kostatzen zitzaion hango harmada eta administralgoa, eta lur eta gizon beltz hoiek ez zuten prezio hau balio, ez bait zuten frantzesak gehiago Saigon eta Hanoi-ra joateko Suez-eko ubidea gorde beharrik.

Orain. Yibuti. Herri Elkartan 148gn herri izatera etorri da.

Ikurrina ere badu: frantsesen urdin-zuri-gorria 26 iluntzean jaitsi zuten eta hurrengo egunsentian beste izar gorridun urdin-orlegi-zuri bat jaso dute.

Badirudi, igande eta astelehen tarte hontan, egun batetik bestera, herri bat jaio dela.

Herriak, aspaldidanik jaioak dira! Gizarte ofizialak ukatzen ditu; ordea, agintzen dutenen gustora.

Afrikakoak izan dute aspaldi hontan zorion haundiena.

Hemengoei, beltzak ez garenoi ere, helduko zaigu garaia.